

Frankensteinen eskua


Hona hemen liburu honetako edozein tokitan azaltzen den printzipio zientifiko baten erakustaldi praktikoa: azido arrunt baten eta base halaber ezagun baten arteko erreakzio kimikoa. Esperimentu honi Halloween kutsua eman diezaiokezu, puxiketaren hezurak, zainak eta torlojuak marrazten badituzu. Ume txikiei asko gustatuko zaizkie efektu bereziak, eskua hazi eta hazi egiten dela ikusten dutenean.

BEHARKO DUZU


- Gomazko eskularru bat
- 2 koilaratxo sodio bikarbonato
- 50 ml ozpin
- 250 ml-ko hauspeatze-ontzi bat

METODOA

1. Bota ozpina hauspeatze-ontzira.
2. Sartu sodio bikarbonatoa eskularruan. Eutsi eskularruari eskumuturretik eta eragin, hautsa atzamarretara joan dadin.
3. Kontu handiz, lotu eskularrua hauspeatze-ontziaren goialdean hutsunerik utzi gabe.
4. Tiratu eskularruari atzamar-puntetatik eta eragin kontuz, sodio bikarbonatoa hauspeatze-ontzira eror dadin.



5. Egin atzera eta ikusi nola hasten den puzten Frankesteinen eskua.



ZIENTZIA-AITZAKIA

Sodio bikarbonatoa base kimikoa da, eta bortizki erreakzionatzen du ozpinaren azido azetikoarekin. Erreakzio horren azpiproduktuetako bat karbono(IV) oxidoa da, eta gas horrek eskularruaz eta hauspeatze-ontziaz osatutako multzoaren presioa handitzen du. Zenbat eta gas gehiago sortu, presio hori gehiago handitzen da eta kanporantz bultzatzen du azalik ahulena (gomazko eskularra); hala, eskularra puztu egiten da pixkanaka.

KONTUZ!

Esperimentu segurua da, oso arrisku txikikoa. Kontuz ibili, eskularra gehiegi puztu ez dadin; hegan atera liteke hauspeatze-ontzitik kanpora.